

# LEHENENGO HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B1 maila

## IDATZIZKO AZTERKETA

### [ A eredua ]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **1h 50 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira.</li> <li>• Hiru irakurgai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko.</li> <li>• Testuen luzera guztira: 1.000 hitz gehienez.</li> </ul>	50 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira.</li> </ul>	60 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzetzat da**.

## 1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

**Aukeratu erantzuna.** Bakarra da zuzena.

### ESKOLATIK LOGELARA ETA LOGELATIK SARERA, BETI LAGUNEKIN

Guraso askok diote ez zaizkiela ezezagunak egiten beren seme-alabek erabiltzen dituzten hitz asko: *tuenti*, *myspace*, *live spaces* eta *facebook* izan daitezke horietako batzuk. Hitz horiek zer esan nahi duten galdetzen zaienean, ordea, ez dute jakiten zer erantzun, eta «Interneteko zerbait» direla esaten dute. Termino horiek guztiek sare sozial ezagunen berri ematen dute, eta gazteek oso modu aktiboan hartzen dute parte horietan.

Horrek argi erakusten du gazteen ohiturak aldatu egin direla azken urteotan. Orain, ordenagailuko pantailaren bitartez izaten dituzte beren elkarrizketak. Telefonoarekin ere berdin jokatzeko dute: ez dute erabiltzen telefonoa belarrira lotuta hainbat orduz. Orain, beren adiskideekin harremanetan egoteko, Internet erabiltzen dute; hain zuzen ere, Internetek eskaintzen dituen zerbitzu jakin batzuk: sare sozialak.

Sare sozialetako harremana ez da aurrez aurrekoa bezalakoa; elkar ikus dezakete, baina ez elkar ukitu; eta horregatik, ez da hain lotura sendoa. Gainera, elkar ikusi gabe komunikatzeko hainbat modu eskaintzen ditu: bideoa, ahotsa, irudia, testuak, jolasak. Harremanetarako formula hori ez dute erabiltzen eskolako lagunekin soilik, edo udako lagunekin, edo diskotekakoekin. Munduko bazter guztietako gazteak dabilza Interneten, eta nahi duten guztiekin izan ditzakete harreman birtualak.

Normala da gurasoek jakin nahi izatea seme-alabek zer egiten duten sare horietan, zer diren benetan sare horiek, eta norekin hitz egiten duten. Dena dela, pausoak neurtu beharra dago, seme-alabek pentsa ez dezaten muturra sartzen ari garela beren kontuetan. Haiei galdetzea da onena, eta haien elkarrizketa birtual horietako batean parte hartzeko baimena eskatzea, betiere errespetu eta prudentzia osoarekin. Hori egiteko prest ez badaude, ez da komeni seme-alaben ordenagailuari lotuta dagoen beste ordenagailuren batetik sartzea, haien orrialdea ikustea eta han zer idazten duten aztertzea. Sare itxiak erabiltzen badituzte, sistema hori erabiltzen duten kideen gurasoekin hitz egin daiteke, eta horrela jakin daiteke zer egiten duten sare horietan. Baina ez da obsesio moduan hartu behar. Gazteak diskotekara doazenean ere, ez dugu jakiten une guztietan zertan ari diren, baina uzten diegu joaten.

Oro har, sare hauek oso eragin ona izaten dute erabiltzaileengan. Sare sozialek, gainera, beste aukera bat ematen diete zenbait gazteri: kanpoko harremanetan arazoak dituzten gazteei, lotsatiak direnei edo interesatzen zaion jendea aurkitzeko zailtasunak dituztenei. Horiek guztiek horrela lortzen dute ingurukoekin komunikatzea, bere erara, konplexurik gabe, eta jende gehiagoren aurrean. Sareek, beraz, ez dute inor bakarrik uzten, eta ezer badira, gazteak gero eta gehiago sozializatzen dira. Sare horiek badute beste abantaila handi bat: elkarrekin lan egitea ezinbestekoa da. Eskolako ikasgaiak ere pasatzen dizkiote elkarri, eta zalantzak argitzeko ere erabiltzen dituzte. Taldean lan egiten dute, eta taldean ikasten dute, eta bertute horri balio handia ematen diote enpresa-munduan. Teknologia berriekin harremanetan jartzen dituzte modu ludikoan eta pentsatu behar da, urte batzuk barru, beren laneko tresna nagusiak izango direla teknologia horiek.

<consumer.es>, 2008ko ekaina. Egokitua.

## 1. ariketa. Aukeratu erantzuna

1. **Zer ez dute ezagutzen gurasoek?**
  - a) Gazteek erabiltzen dituzten hitzak.
  - b) Seme-alabek erabilitako terminoen esanahia.
  - c) Interneteko hitz asko.
2. **Zertarako erabiltzen dute gazteek telefonoa?**
  - a) Sare sozialak kontsultatzeko.
  - b) Lagunen ohiturak ezagutzeko.
  - c) Betiko moduko elkarrizketak izateko.
3. **Nolakoak dira sare sozialen bidezko harremanak?**
  - a) Lotura handikoak.
  - b) Sendoak, elkar ikusten dutelako.
  - c) Ez dira zuzenekoak bezalakoak.
4. **Norekin komunikatzen dira gazteak sareen bitartez?**
  - a) Udako lagun-taldearekin batez ere.
  - b) Munduko edonorekin.
  - c) Ikaskideekin besterik ez.
5. **Zer egin dezakete gurasoek seme-alabez jakiteko?**
  - a) Elkarrizketa birtualak bultzatu.
  - b) Haien elkarrizketak ezkutuan begiratu.
  - c) Zuzenean galdetu.
6. **Eta zer egin dezakete gazteen baimenik gabe?**
  - a) Gazteei erabiltzea debekatu.
  - b) Beste guraso batzuekin komentatu.
  - c) Baimena beste ordenagailu batetik eskatu.
7. **Norentzat dira aukera ona sare sozialak?**
  - a) Konplexurik ez dutenentzat.
  - b) Lotsagabeentzat.
  - c) Komunikatzeko arazoak dituztenentzat.
8. **Testuaren arabera, zertarako dira aproposak sareak?**
  - a) Talde-lanean lan egiten ikasteko.
  - b) Enpresak sozializatzeko.
  - c) Enpresetan lan egiteko.

## 2. ariketa

Irakurri ondorengo testuak. Hurrengo orrian esaldi batzuk dauzkazu. Esaldi bakoitza testu bati (A, B edo C) dagokio.

**Lotu esaldiak eta testuak.**

### **A** ARGAZKI LEHIAKETA:

#### **LEIOA**

Nahi duten guztiek parte har dezakete argazki-lehiaketa honetan, betiere ezarritako modalitateen barruan. Modalitateak hauek dira: zuri-beltza, kolorea, iphoneografiak edo sakelako telefonoarekin egindako argazkiak.

Gaia egileak aukera dezake, baina lanek originalak eta argitaratu gabeak izan behar dute. Argazkiak aurkeztu beharko dira gehienez hiru mm-ko lodiera duen kartoizko marko baten gainean eta 30 x 40 cm-ko neurri estandarrean.

Lehiaketara aurkeztutako lanekin batera, inskripzio-orria edo parte-hartzailearen datuak aurkeztu behar dira.

<kulturleioa.com>

### **B** ARGAZKI LEHIAKETA:

#### **AZPEITIA**

Adin nagusiko edozeinek parte hartu ahal izango du. Argazkiak kamara digital batekin egingo dira eta edozein teknika erabili ahal izango da. Irudiak prozesatu ahal izango dira, horretarako erabiltzen den edozein programa informatikorekin.

Argazkiak nahitaez 30 x 45 cm-ko formatuan inprimatuta ekarri beharko dira, formatu bertikalean edo horizontalean. Ezin izango dira inolako oinarrietan muntatu, ezta kartulinar ere.

Obra osoari izenburua jartzeaz gain, argazki bakoitzari ere berea jarri beharko zaio.

<getxo.net>

### **C** ARGAZKI LEHIAKETA:

#### **ARRASATE**

Ikasturte honetan unibertsitatean matrikulatutako ikasleek eta bertako langileek parte hartzeko aukera dute. Gehienez ere hiru argazki aurkeztu ditzake egile bakoitzak, koloretan edota zuri-beltzean. Bilduma bakoitzak izenburu bat izan behar du.

Argazkiak jatorrizkoak eta esklusiboak izango dira. Nahiz eta argazkiei osotasunean ukituak eman ahal zaizkien, ezingo da gehitu edo kendu bere jatorrizko konposizioa aldatzen duen elementurik. Artxibo guztiak JPEG formatu digitalekoak izango dira eta ahalik eta kalitate handiena izan behar dute. Argazkiak inprimatu gabe aurkeztuko dira, euskarri digital batean edo gure helbide elektronikora bidalita.

<mondragon.edu>

**2. ariketa. Lotu esaldiak eta testuak**

9.	Hemezortzi urtetik aurrerakoek parte hartu ahal dute.
10.	Formatu digitalean aurkeztuko dira lanak.
11.	Teknika aukeratu daiteke.
12.	Oinarri batean aurkeztu beharko dira.
13.	Posta elektronikoz bidali ahal izango dira.
14.	Gaia edozein izan daiteke.
15.	Argazki bakoitzak bere izenburua izango du.
16.	Sakelako telefonoarekin egindakoak ere onartuko dira.
17.	Argazkiak ez dira inprimatu behar.

A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C

## 3. ariketa

Elkarrizketa bat irakurriko duzu. Testuan, kazetariak egindako galderak falta dira. Hurrengo orrian dituzu galderak. **Lotu galderak eta erantzunak.**

Markatu testuko hutsuneak (18, 19, 20...) betetzeko zein diren galdera egokienak (A, B, C...).

**Galdera bat sobera dago.**

## NAHIA QUINCOSES

Mendiko eskiatzailea eta korrikalaria da. Italian eskiatu zuen duela pare bat asteburu, iraupen eskiko Munduko Kopako proba batean. *Pierra Menta* lasterketa ospetsuan lehiatuko da bihartik larunbatera, Frantzian.

18

Asteburu berezi samarra izan zen. Probak, berez, larunbatean eta igandean ziren. Ez zegoen eski-estaziorik eta bi aterpe zeuden soilik. Oso leku basatietatik igarotzen zen ibilbidea. Lasterketan, burua altxatzen nuenean, paraje ikaragarriak ikusteko aukera izan nuen.

19

Lasterketa gehienetan hamargarren postuaren inguruan ibili naiz eta berdintsu ibiltzea da nire asmoa. Aurrekoetan hobeto ibili nintzen eta gehienbat lehenengoan gozatu nuen gehien.

20

Aurretik, ni bakarrik entrenatzen nintzen, baina zaila da diziplinari eta ordena bati eustea. Beste batekin entrenatzeak beste seriotasun bat ematen dio, eta beste ikuspuntu bat izateak asko laguntzen du.

21

Lasterketa hasi aurretik gehienbat. Open Altitoy Ternua lasterketan bertan pasatu izan zait, beroketa egiteko orduan. Hala ere, bukaeran, neure buruari berriro galdetzean, beti merezi izan duela pentsatzen dut. Lasterketa barruan ez dut pentsatzen, askotan azkar amaitu nahi izaten dut, eta onena lehenbailehen bukatzea izaten da.

22

Badirudi baietz. Betiko ametsa izan da. “Proba hori egin behar dut” esan nion neure buruari federazioko egonaldi batean, Luz Ardidenen (Okzitania), lehenengoz probari buruzko film bat ikusi nuenetik. Iaz ikustera joan nintzen, eta ikustea ere ikaragarria izan zen.

23

Bakarkakoetan, bakoitzak neurtzen du bere burua, eta horrek ere badu bere xarma. Binakakoak, ordea, bereziak dira. Taldekidearekin ondo eramatea ezinbestekoa da, eta orain arte behintzat denekin oso ondo moldatu izan naiz.

24

Mendiko lasterketak aitzakia izan ziren mendiko eskia entrenatzeko. Aurretik, Hiru Handiak lasterketa oinez eginda nuen arren, hau beste gauza bat zen. Lasterketak oso gustuko nituela konturatu nintzen.

25

Lasterketa batzuk baditut buruan, Zegama-Aizkorri esate baterako. Denborarekin korritzea gustatuko litzaidake. Oraintxe bertan, *Pierra Menta* dut buruan, eta gero gerokoak.

UGARTEMENDIA, Unai.

Berria, 2015eko martxoaren 10a. Egokitua

**3. ariketa. Lotu galderak eta erantzunak**

- A. Nolako laguntza da zuretzat Jokin Lizeagarekin entrenatzea?
- B. *Pierra Menta* lasterketa. Aurten bai?
- C. Mendiko korrikalaria ere bazara. Noiz eta nola hasi zinen mendi-lasterketetan?
- D. Baduzu lasterketa-egutegirik?
- E. Nolakoa izan zen Italiako Munduko Kopako proba?
- F. Inoiz pentsatu al duzu lasterketaren barnean ea zer egiten duzun han?
- G. Zenbat aldiz entrenatzen duzu astean?
- H. Zer nahiago duzu, bakarkako lasterketak ala taldekakoak?
- I. Munduko Kopako azken proba gelditzen da. Zein izango da zure helburua?

■ Idatzi zenbakiari dagokion letra ondoko laukietan:

Hutsuneak	18	19	20	21	22	23	24	25
Galderak								

Soberakoa	
-----------	--

Soberako aukera hau ez da jaso behar erantzun-orrian.

### Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- **Emandako informazioa ezin duzu hitzez hitz kopiatu.**
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **aztertzaileek ez dute zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Ez jarri zure izen-abizenik; **asmatu izenpea anonimotasuna bermatzeko.**
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
  - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
  - Ideiak garbi adierazi dituzun.
  - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna edota aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.  
EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.**

### 1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **inprimakia** bete behar duzu.  
**Gutxienez 50 hitz** idatzi behar dituzu.

**GAIA:** Osakidetzak gutun bat bidali dizu anbulatorioko familia-medikua aldatuko dizutela esateko. Ez zaude konforme eta anbulatorioan kexa ipintzea erabaki duzu.

Anbulatorioan erreklamazio-orria eman dizute. Azaldu zer gertatu zaizun, zergatik ez zauden ados eta zer konponbide proposatzen duzun.



## 2. ariketa

Gaia kontuan hartu eta aparteko orrian dagoen **leihoa** bete behar duzu.  
**Gutxienez 100 hitz** idatzi behar dituzu.

**GAIA:** Lanorduetan gero eta ospakizun gehiago eta luzeagoak egiten dituzue (urtebetetzeak, agurrak...). Arduradunak bilera batera deitu zizuen atzo gai horretaz hitz egiteko, baina zure lankide Garikoitz ezin izan zen bilerara joan. Hori dela eta, mezu bat idatzi dizu.

■ Hauxe da jaso duzun mezua:

The screenshot shows an email client window titled "Idatzi mezua". At the top, there are buttons for "Bidali", "Gorde", and "Baztertu". The "Norentzat:" field contains "Nerea". Below it are links for "Gehitu Cc" and "Gehitu Bcc". The "Gaia:" field contains "Ospakizunak direla eta" with a link for "Erantsi fitxategia". A rich text toolbar is visible with icons for bold, italic, underline, font color, background color, text color, text size, bulleted list, numbered list, indent, outdent, link, unlink, and text color. The main body of the email contains the following text:

**Egun on, Nerea:**

**Dakizunez, atzo ezin izan nintzen batzarrera joan. Kontatuko didazu, mesedez, zer gertatu zen? Zer erabaki zenuten? Hemendik aurrera zer egingo dugu? Ospakizunak antolatzen utziko digute? Noiz? Nola?**

**Garikoitz**

■ Erantzun iezaiozu lankideari.

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua



**IVAP**

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA

■ **1. ariketa:** aukeratu erantzuna.

■ **Irakurgaia:** «ESKOLATIK LOGELARA ETA LOGELATIK SARERA»

1.	B	2.	A	3.	C
4.	B	5.	C	6.	B
7.	C	8.	A		

■ **2. ariketa:** lotu esaldiak eta testuak.

■ **Irakurgaia:** «ARGAZKI LEHIAKETA»

9.	B	10.	C	11.	B
12.	A	13.	C	14.	A
15.	B	16.	A	17.	C

■ **3. ariketa:** lotu galderak eta erantzunak.

■ **Irakurgaia:** «NAHIA QUINCOCES»

Hutsuneak	18	19	20	21	22	23	24	25
Galderak	E	I	A	F	B	H	C	D

Soberakoa	G
-----------	---